

EUSKAL ENPRESAK NEGOZIO AUKERA BILA DOAZ PANAMA ETA EL SALVADORera

Donostia - 2015ko Ekainaren 5a - Panama eta El Salvador-era joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganbarekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren laguntzarekin.

Misioa ekainaren 8a eta 12a bitartean egingo da eta 10 enpresek parte hartuko dute, 7 gipuzkoar eta 3 bizkaitar. Sektoreei dagokionez hauek izango liriateke herrialdea bisitatuko duten enpresen sektoreak: eraikuntza materiala, instalazio elektrikoak, informatika, etxetresna elektrikoak, serrailagintza, telekomunikazioak... Misio hau, Erdialdeko Amerikako bi herrialde hauetan negozio aukera bilatzeko interesa duten enpresei zuzendua dago, misio beraren helburua merkatu honetan harreman komertzialak ezartzea eta finkatzea da eta bertako enpresarekin harreman zuzena izateko aukera eskaintzea.

Panama - El Salvador

Panamaren iraupeneko bizi-maila Erdialdeko Amerikako eskualdeko altuena da eta era berean azken urtetako hazkunde dinamikoena izan duen eskualdea da, urtetik urterako BPG hazkunde tasa batekin, %10,7 2012an, %8,4koa 2013an eta %7,3koa 2014ean. Panama herrialde inportatzailea da bati bat, era guztietako produktuak inportatzen ditu, batez ere industria teknologiarekin, modarekin, habitatarekin, industria mekanikoarekin eta energia produkzioarekin zer ikusia dutenak, hauek dira eskaera handia dutenak. Eraikuntzak herrialde honetan duen zabalkuntza dela eta azken urtetan gehien eskatu diren produktuak ekipamendu ondasunekoak eta eraikuntzarako eta lan publikoetarako makinaria izan dira.

El Salvadorri dagokionez, 2014ean %2,1eko igoera izan duela estimatzen da. Herrialde honetan aukera gehien duten sektoreak honako hauek dira: jantzigintza, makina eta aparatu mekanikoak, autogintza eta osagarriak, produktu kimiko farmazeutikoak, eraikuntza materiala eta makinaria, ingurumena (uren eta hondakinen tratamendua, ordezko energia), ureztatze teknologia, ehun makinaria, hezkuntza materiala eta ingenieria eta aholkularitza zerbitzuak. Aholkularitza eta ingenieria sektoreen beharra handia da herrialde honetan herrialdea modernizatze prozesu batean dagoelako, hezkuntza, turismoa eta osasuna berritzeko behar handia du. Energia gobernuaren beste lehentasunetako bat da, energia berriztagarriak bereziki. Nekazaritza guneen elektrifikazioa, nekazal errepideen eraikuntza eta hobekuntza ere gobernuak dituen beste lehentasunetako batzuk dira, herrialdeko bideen azpiegituren hobekuntzak diren bezalaxe.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Iruñe Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347